

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 2018/29/S596)

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesduna: Andrés Boltvin Pliuta.

Erabaki hau ezin izan zaionez jakinarazi interesdunari, helbide ezezaguna baitu, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan agintzen duena betetzeko, iragarki hau BOEn, eta aurretiaz eta borondatezko izaeraz, ALHAOn eta udal honen iragarki taulan argitaratuz, jakinarazten zaio alkatearen 18/160 Ebazpena, hitzez hitz honela dioena:

“2018ko ekainaren 25ean ebazpena eman zen (18/160 Dekretua), zeinaren edukia, zuri dagokizunez, ondoren jakinarazten zaizun hau baita:

Y. B. jaunak/andreak, Mendiko kaleko 42 etxebizitzaren alokairu kontratuaren titularrak, 2018ko maiatzaren 28an aurkeztutako idazkiaren bidez udalari jakinarazi dio Andrés Boltvin Pliuta arauz kanpo erroldatuta dagoela biztanleen udal erroldan, pertsona hori ez baita aipatutako etxean bizi. Hortaz, ez ditu betetzen Biztanle eta Lurralde Mugei buruzko Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutakoak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Udaltzaingoak horri buruz emandako txostena ikusirik, ondorioztatzen da aurretik adierazi den pertsona ez dela bizi bertan adierazten den bizilekuan.

Bat etorritik aipatutako Arautegiaren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionaleko Presidenteak eta Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin emandako Ebazpenean xedatutakoarekin, zeinak jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal erroldaren kudeaketari buruz, eta, bereziki, arauz kanpoko erroldatzeagatik baja emateari buruzko atalean ezarritakoarekin, bai eta alkatetza honek orokorki aplikatzekoa den gainerako legedian ezarritakoarekin, eta legez esleiturik ditudan ahalmenak baliatuz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetu dadin onartzea, eta ofizioz espedientea abiaraztea ondoren azaltzen den pertsonari baja emateko Amurrioko Udalaren biztanle erroldan, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik:

IZEN-DEITURAK		AGIRIA
1	ANDRÉS BOLTVIN PLIUTA	79.226.961-B

Bigarrena. Eragingindako pertsonari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean aukera izan dezan egoki jotzen dituen agiri eta frogagiriak aurkeztu eta egiaztatzeko udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela, edo, bestela, bere errolda egoera erregularizatzeko, udal honi jakinaraziz helbidea nora aldatu duen edo egun zein udalerritan bizi den.

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2018ko ekainaren 25a. Idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut. Alkatearen eta idazkariaren izenpe eta errubrika elektronikoak.

Jakin dezazuen eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizuet.”

Amurrio, 2018ko irailaren 10a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA